BIZITEGEI ERAIKINA — EUSKAL HERRIA PLAZA 3

C MAILA





Egilea eta data: Luis Elizalde, 1915

Deskribapena

Hiru fatxadako eraikina. Jatorriz, erdisotoa, bastardea, bost goi oin eta estalkipeko oina ditu (proiektuan itsua zen, egun mantsardatuta dago, zati batean atzeraemana eta leihoz hornitua). Harlanduzko fatxada, material zeramikoaz konbinatua. Hormigoizko begiratokiak izkinetan eta alboetako ertzetako baoetan. Konposizio enfasia Mirakruz kalerako izkinan, material zeramikoz estalitako gorputz enbor itxurako estalki handiaz.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: estalkipe mantsardatua (6. oina); era berean, kanpoko lorategia eta horren itxitura baztertzen dira (Ategorrieta hiribidearen aurrean).
- B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak, zeramikazko estaldurak eta elementu moldekatuak.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.